



# 10 KULTUR ANIZTASUNA >>>

## HIZKUNTZEN EKOLOGIA

**Iñaki Martinez de Luna**

*EHU – Eusko Ikaskuntza*

Helbide elektronikoa: [mtz-de-luna@ej-gv.es](mailto:mtz-de-luna@ej-gv.es)

Artikulu hau aurretik  
[www.euskonews.com](http://www.euskonews.com) web-orrian  
argitaratua izan zen.

### IRAUNKORTASUNA ETA HIZKUNTZAREN IRAUNKORTASUNA

Gaur egun aniztasunak alor guztietan (osasun demokratikoan, ekonomian, ingurumenean...) duen balioa aintzat hartuta, kulturartekotasuna eta eleaniztasuna gizartearentzat onuragarriak direla esateko moduan gaude, hau da, kalte baino on gehiago egiten diotela. Hortik abiatuz, hipotesi hau planteatu du Albert Bastardasek: "hizkuntza-aniztasuna onuragarria da aniztasun hori bizi duen gizartearentzat".

Baina, aniztasuna aberasgarria izan badaiteke ere, ez ote dio eraginkortasunari kalterik eragiten? Zalantza horren aurrean, zuhurtzia osoz eta behin-behinekotasunez, beste hipotesi hau osatu dezakegu: "hizkuntza-aniztasuna bateragarria da komunikazioaren eraginkortasunarekin".

Iraunkortasunak badu erronka handi bat: aurrerapen ekonomiko eta soziala planetaren oreka naturalarekin uztartzeko bideak bilatzea. Eta, beraz, itxura batean behinik behin *kontraoak* direnak kontzeptu bateratzaile batean (garapen iraunkorra sintagman) elkartzeko borondatea da abiapuntua.

Alor soziolinguistikoan hauek dira *kontraoak*: hizkuntza handien hedapen glotofagikoa eta hizkuntza-aniztasuna gorde eta garatzea.

Horren aurrean, hiru aukera ditugu:

- A aukera: jatorrizko hizkuntzak bertan behera utzi eta komunikatzeko estatu- edo mundu-kode handiak soilik geureganatzea, eta horrela garapen ekonomiko eta kulturaren (uniformetasunaren) alde egitea.
- B aukera: hizkuntza gutxituaren komunitateak horren alde egitea eta hizkuntza nagusiaren hiztun komunitatearekin aurrez aurre jaretzea, hau da, gatazka linguistikora jotzea.
- C aukera: hizkuntza-aniztasuna eta talde-identitateak zaintzea, kultura bakoitzak sortu duen iraupeneko eta herri-jakintzako ekosistema tradizionala desagertzeak ekarriko lukeen pobretasuna eta anomia saihesteko.

Aukera horien aurrean, hizkuntza guztien biziraupena bizikidetzaren harmoniatsuan oinarritu dadin, estrapolatu al daiteke iraunkortasunaren kontzeptu adiskidetzailera kontraposizio linguistikoko horretara? Bai, baina gure pentsakera aldatu beharko litzateke horretarako:

- Berdintasunezko hizkuntza-ikuspegi ekologikotik, baztertu egin beharko lirateke hedapena eta menperatzea oinarri hartzen duten ideologiak, eta historiaren beste fase batera pasatu, hizkuntza eta talde linguistikoko guztiei duintasun berbera aitortzeko.
- Joera dikotomiko negatiboa (bata edo bestea) zokoratu eta konplexutasunaren paradigma (bata eta bestea) geureganatu beharko genuke.

Ildo horretatik, garapen iraunkorrak gizartearen garapena eta hobekuntza, batetik, eta ekosistema naturalaren orekari eustea, bestetik, uztartzen dituen moduan...

- ...hizkuntzaren iraunkortasunak hainbat hizkuntza eta kulturatako taldeen eta norbanakoen arteko komunikazioa onartzen du, hizkuntza-taldeen eta horien kulturen biziraupenari eta erabateko garapenari uko egin gabe.
- ...iraunkortasunaren etiketik abiatuz, talde bakoitzaren komunikazio-kodeen aniztasuna babestu beharreko balioa da, baina ez bitxikeria antropologikoa bailitzan, baizik eta pertsonen eta gizartearen berezko duintasunari lotuta dagoelako; hori ukazina da.

Dena den, aitortu beharra dago: iraunkortasuna korapilatsua da. Gainera, fenomenoaren ikuskera ekosistemikoa eskatzen du, gizakiok ez baikara gure ingurune naturaletik at bizi, eta gure ekintzek haren eragina dute eta alderantziz. Hori dela eta...

- ...**hizkuntzen** ekologiak ekosistemak eta ekosistemen arteko harremanak hartu beharko ditu kontuan; izan ere, oinarritzko unita-

---

*Hizkuntza-aniztasuna  
onuragarria da aniztasun  
hori bizi duen  
gizartearentzat.*

---

*Berdintasunezko  
hizkuntza-ikuspegi  
ekologikotik, baztertu  
egin beharko lirateke  
hedapena eta  
menperatzea oinarri  
hartzen duten ideologiak,  
eta historiaren beste fase  
batera pasatu, hizkuntza  
eta talde linguistiko  
guztiei duintasun berbera  
aitortzeko.*

tea ez da hizkuntza, hizkuntza eta haren testuingurua baizik. Hizkuntza jakin bat iraunkor bihurtzeko, haren (erre)produktzio egokia bermatuko duen ekosistema soziokulturala bihurtu behar dugu iraunkor.

- ...ekonomiaren, politikaren, hezkuntzaren, migrazioen... alorreko neurriek ingurumenaren edo ekologiaren gainean sortzen dituzten eraginak aztertzen diren bezalaxe, horien eragin soziolinguistiko ere behatu beharko litzateke, eleaniztasunaren kudeaketa iraunkorraren ikuspegitik.

Ekologiaren adibide horri eutsiz, ekosisteman partaide diren elementuen oreka dinamikoari eusten ahalegintzen da iraunkortasuna; nola? Gaiak berritzeko duten gaitasunaren gainetik gai horien kontsumoa saihestuz, adibidez. Hizkuntzaren alorrean hauxe esan gura du horrek:

- Kanpoko hizkuntzak edo hizkuntza arrotzak behar baino gehiago ez erabiltzea eta norberaren hizkuntzari ondorio edo distortsio gutxien eragitea, hau da, tokian tokiko **hizkuntzen** iraupena kolokan jarriko duten erabilerarik ez ematea beste hizkuntzei.
- Politikaren alorrean erabiltzen den subsidiarioritasunaren kontzeptua aplikatzea: ez hizkuntza globalik erabili tokiko hizkuntza erabiltzerik dagoenean.

## **HIZKUNTZA EKOLOGIAN AURRERA EGITEKO BALDINTZAK**

Bide handia dago egiteko hizkuntzaren garapen iraunkorrean. Baina kontuan hartzekoa da, halaber, gaur egun hizkuntza-taldeen eta hiztunen arteko harremana handituz doala arian-arian. Mundu globalizatu honean, nazioarteko komunikazio-hizkuntza handien beharra areagotuz doa, eta horrek gainerako **hizkuntzen** aurka egiten du. Dena den, eleaniztasunaren aldeko sentikortasuna ere nabarmen handitu da, eta nazioarteko erakundeak eta hainbat gobernu hitzun gutxiko hizkuntza-taldeak babesteko etikaren alde egiten ari dira: Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (Bartzelona, 1996), Hizkuntza Gutxituen Europako Gutuna (besteak beste, Espainiak sinatua)...

Gero eta jakinekoagoa da, hainbat kultura eta hizkuntza ezagutzeak aberastu egiten dituela pertsonak eta herriak. Baina aberastasun kultural hori hizkuntzak eta kulturak batzean datza, ez elkarren aurka jartzean. Beraz, logika hori honela adieraziko genuke gure kasuan: Cervantes gehi Axular, ez Cervantes Axularren aurka edo alderantziz. Horrenbestean, gero eta beharrezkoagoa da talde guztien hizkuntzei iraunarazteko laguntza-politikak sortzea, kasuan kasuko planteamendu eta neurriekin,

jakina. Zeren, egia esateko, aukera guztien eskubideak eta duintasuna aitortuko dituen planteamendurik gabe, kulturantzitasunak eta eleaniztasunak taldeen arteko gatazka sortu dezakete, horrek gizartean eta bizikidetzan izango lituzkeen ondorioekin.

Alabaina, hizkuntzaren iraunkortasunaren alorrean arrakasta izateko, behar-beharrezkoa da:

1. Hizkuntzak diruz laguntzera mugatzen diren politikak gainditzea, eta hizkuntza-funtzioak berdintasunez banatzean oinarritzen diren beste jarrerara batzuk hartzea.
2. Arazoen arazoieiei aurre egitea, arazoa arinduko duten neurriak hartzera mugatu gabe.
3. Hizkuntza-taldeen artean konpromisoa hartzea, lekuan lekuko hizkuntzak bertan behera uzteko arazoietan eraginkortasunez eragiteko.
4. Nazioarteko erakundeek iraunkortasunaren filosofiaren eta antolamendu-printzipio baliozko eta praktikoak bilatzearen alde egitea.
5. Herri guztiek bat eginik jardutea munduan, mende berrian nola komunikatu erabakitzeko.
6. Nazioarteko jardun hori tokian tokiko erakundeek onartu eta aplikatzea maila guztietan.

Laburbilduz, hizkuntzaren iraunkortasunean aurrera egiteko, badira bost urrats erabakigarri:

1. Nazioarteko hizkuntza handien gehiegizko erabilera geldiaraztea eta hizkuntza-berdintasunaren eta —elkartasunaren ideologia hedatzea.
2. Hiztun gutxiko eta menpeko hizkuntza-taldeen beren buruaz duten irudiari duintasuna ematea.
3. Hizkuntza-talde horiei euren komunikazio-esparrua kudeatzeko eta hizkuntza-erabilera publikoak autonomiaz erregulatzeko aukera ematea.
4. Komunikazio-funtzioak banatzerakoan, egun menpekoak diren hizkuntzei funtzio eskusiboak eta eraginkorrak ematea.
5. Gobernuak, enpresak eta gizarteak hizkuntzaren iraunkortasunaren garrantziaz jabetaraztea, eta erabakiak hartzeko prozesuetan eragin soziolinguistikoko azterlanak erabiltzeko ohitura hartu dezaten gonbidatzea.■

## ERREFERENTZIAK

Bastardas, A.: "Towards a 'linguistic sustainability': Concepts, principles, and problems of human communicative organisation in the 21st cen-

---

*Bide handia dago egiteko hizkuntzaren garapen iraunkorrean. Baina kontuan hartzekoa da, halaber, gaur egun hizkuntza-taldeen eta hiztunen arteko harremana handituz doala arian-arian.*

turey”, in Diálogo sobre diversidad lingüística, sostenibilidad y paz (Linguapax biltzarra), 2004.

Martínez de Luna, I.: “La diversidad lingüística y el símil ecológico”, Nafarroako Ateneoan emandako hitzaldia, Iruñeko udala, 2006ko abendua.

Suberbiola, P.: “Hizkuntza garapen iraunkor baterantz”, in HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa, Asmoz Fundazioa, 2006.